

136. FITXA Energia biltegitratzeko proiektu berritzaileetarako laguntzen lehen deialdia, FEDER 21-27 funtsekin batera finantzatua

Nori zuzendua: pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak, legez eta behar bezala eratuak, egoitza fiskala Espainian dutenak.

Sarbide-esteka: [Hasiera](#) | [IDAE Egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [TED/535/2025 Agindua, maiatzaren 28koa, Europar Batasuneko funtsekin batera finantza daitezkeen energia biltegitratzeko proiektu berritzaileei laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena](#)

Eremuak: Energia-trantsizioa

Zenbatekoa: 699.757.316 € (394.557 € EAErentzat)

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/15eko 14:00etan.

Laburpena

Deialdi honen helburua **energia biltegitratzeko proiektu berritzaileak** hedatzea da, sistema elektrikoari malgutasuna emateko eta energia berriztagarrien integrazioa handitzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- Energia biltegitratzeko «stand alone» proiektu independenteak**, kontsumo elektrikoari lotutako edo lotu gabeko energia elektrikoaren garraio zein banaketa-sareetara konektatuta daudenak. Proiektu horien gutxienerako potentzia **1 MW** izango da.
- Ponpaketa hidroelektriko bidezko biltegitratze-proiektuak** (berriak eta lehendik dauden azpiegituren gainekoak). Proiektu horien gutxienerako potentzia **1 MW** izango da. **Euskadin ezin da finantzatu.**
- Biltegitratze termikoko proiektu independenteak:** energia elektrikoa hornitzeko energia elektrikoa biltegitratzekoak «power to power (P2P)» deiturikoak; energia termikoa hornitzeko energia elektrikoa biltegitratzekoak «power to heat (P2H)» zein energia elektrikoa sortzeko biltegitratze termikoak «heat to power (H2P)» deiturikoak. **Euskadin ezin da finantzatu.**
- Biltegitratze hibridatuko proiektuak**, energia elektrikoa iturri berriztagarriekin, daudenekin zein berriekin, sortzeko instalazioekin. Proiektu horiek aurreko edozein ataletako teknologia barne hartu ahal izango dute, a) eta b) ataletan adierazitako potentzia-mugekin. **Euskadin ezin da finantzatu.**

Ez dira hautagarriak izango erregai fosilekin lotuta dauden instalazioak, emisio-eskubideen erregimenak estalitako jarduerak, ez hidrogenoa sortzea edo biltegitratzea ere.

Ezin izango dira hautatu lehenagoko hiru deialdi hauetako edozeinetan laguntza jaso duten proiektuak, ezta horien jarduketa partzialak ere:

- Energia biltegitratzeko proiektu berritzaileak, TED/807/2023 Agindua (stand alone eta termikoa).
- Energia iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioak darabiltzaten energia biltegitratze hibridatuko proiektu berritzaileak, TED/1177/2022 Agindua.
- Uharteei energia berriztagarriko iturrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako laguntzak emateko programa, TED/448/2023 Agindua.

Gastuetarako aldi hautagarria

2023ko martxoaren 9aren ondoren hasitako jarduerak soilik lagunduko dira diruz.

Jarduketak gauzatzeko gehieneko epea: **36 hilabetekoa**, diru-laguntza emateko ebazpenetik aurrera.

Proiektuak amaitzeko azken eguna: **2029ko irailaren 30a**.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza gisako laguntza, eskualdearen arabera honako maximo hauetara mugatuta (EGEF):

- **Garatuagoak (Aragoi, Katalunia, Madril, Nafarroa eta Euskadi): % 40.**
- Trantsizioan (Asturias, Balear Uharteak, Kantabria, Gaztela eta León, Valentziako Erkidegoa, Galizia, Errioxa eta Murtzia): % 60.
- Gutxiago garatuak (Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Ceuta, Extremadura eta Melilla) eta Kanariak: %85.